

HERNANIK kronika

2003 urtea
Ekainak 28
Larunbata
Alea: 809
www.kronika.net



Ostolaza harri jasotzailea 177 kiloko harria esku bakarrarekin jasotzen. Hiru jasoaldi eman zizkion.

Herri kirol ikuskizuna Baserritar Egunean

■ Harri jasotzen, aizkoran 6 metroko alturan, txinguran eta abar aritu ziren ■ Jende asko bildu zen.

HERRI kirol festa ederra izan zen atzo Tilosetan, Baserritar Egunean. Orain artean ez bezala, aurten eguerdian izan da ikuskizuna eta jendetza haundia bildu zen, Elur-Txori elkarteko antolatutako probetan. Bost protagonista izan ziren atzoko herri kiroletan: Ostolaza eta Landarbide harri jasotza-

ileak, Mugerza aizkolaria, eta Lapazaran eta Tubi, zenbait probetan parte hartu zutenak. Ziriako ezagunak zuzendu zituen kirolariak mikrofonik.

Harrijasotzaileek izerdi dezente bota zuten: Ostolazak 177 kiloko harria esku bakarrarekin hiru aldiz jaso zuen, eta Landarbidek 8 jasoaldi eman zizkion 150

kilokoari, 2 minutuz azpitik. Harri haundiekin eta bolarrekin ere aritu ziren lanean.

Txingura jasotzen munduko markarik onena duena, (Japones batena onduta) Tilosetan izan zen atzo. Joxe Lapazaraneak 65 aldiz altxa zuen txingura minutuz azpitik, beldurtzeko erritmoan. Lagunak baino 5 aldiz gehiago.

Herri kirolariak proba dezentz egin zituzten eta publikoak gozatu zuen haiei begira.

Bertso saioa bezperan
Bertso saioa Baserritar Eguren bezperan izan da aurten. Bertsozale asko bildu zen plazan eta saio polita egin zuten Lizaso, Zerain, Legarreta, Agirre, Iturriaga eta Zelaiak. □



Bertsolariak Baserritar Eguren bezperan. Eskubian, atzo Tilosetan izandako herri kirolak.

MENDIRIZ MENDI

Ardiden mendira irteera uztailaren 5 eta 6an

MENDIRIZ Mendi elkarrean Luz Ardiden ingurua asteburua pasa antolatu du, uztailaren 5-6rako. Ardiden 2.998 metroko mendia da eta tontoretik benetan paisaje ikuskarria du 3.000ko zenbait mendi ikusten direla: Perido, Tallon, Neouville eta Pig Long, besteak beste. Mendiriz Mendiren esanetan, ibilbide luzea du mendiak, baina, merezi du. Komeni da kranpoia eta pioleta eramatea.

Bidaia eta pensio erdia 45 euro da Mendiriz Mendiko bazzkideentzat eta 55 euro gainontzekoentzat. Izena emateko epea uztailaren 3an bukatuko da. Autobusa Atsegindegitik aterako da, uztailaren 5, larunbata, arratsaldeko 15:00etan. □

Jubilatu Etxeak Gandiara eskurtsioa antolatu du udazkenerako

JUBILATU Etxeak Gandiara (Valentzia) eskurtsioa antolatu du irailaren 27tik urriaren 7ra. Dijonanak Gandia bera ez ezik inguruak ezagutzeko aukera ederra izango du. Izena ematea zabalik dago eta datorren ostiralean egingo da sorteoa, arratsaldeko 17:00etan. Jubilatu Etxeak urtean bi eskurtsio antolatzen ditu 10-12 egun ingurukoak. Lehenbizikoa Galiziara izan zen maiatz-ekainean, eta Mediterraneo aldera izango da bigarrena. □

■ PELOTA

Herriarteko finalerako sarrerak salgai gaur

HERRIARTEKO finala igande honetan da Atano IIIgarrenean eta gaur arratsaldean sarrerak salgai egongo dira kirodegiko takilan, 15:00etatik 19:00etara. □

Antziola-Motor
Salmenta eta tailer zerbitzua

ford Tourneo Connect

*Gogortasunaren
forma berria*



Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

AMEGAR

Etxe tresnak
Altzariak

Elektrogailuak
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak
Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

Telemar

Itxastele, S.L.

Aldatu zure Activa
89 eurotik aurrera.



Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



Urdangarin pelota jotzen eta Tutu zai-zai. Gaur elkar probatuko dute.

Kronika Pelota txapelketako finala gaur Tilosetan

■ 18:00etan 3/4 postuak jokatuko dira, eta gero finala: Garmendia-Zabala/Legarreta-Ezeiza.

KRONIKA Pelota txapelketako finala jokatuko da gaur arratsaldean Tilosetan. Azken faseko ligilan aurrenbigarren gelditu direnek jokatuko dute finala elkarren kontra. Garmendia-Zabala eta Legarreta-Ezeiza izan dira orain arteko onenak.


Zabala eta Garmendiak irabazi zuten iaz Kronika txapelketa, eta horri eustera aterako dira gaur. Ez dirudi, ordea, faborito garbirik da-

goenik. Iaz Garmendiak eta Zabalak txapelketa osoan partidu bakar bat ere galdu gabe irabazi zuten txapela, eta aurten azkeneko ligilan Legarretak eta Ezeizak 22-21 hartu zituzten mendean iazko txapeldunak.

Azken ligilan Tutu-Iñaki eta Zelaia-Urdangarin gelditu dira hirugarren eta laugarren, eta 18:00etan bi bikote horiek jokatuko dute zein hirugarren gelditu. □



Sandiusterrin ere festa. Sandiusterriko Zaharren egoitzan ere festa izan dute San Joanetan. Bertako ekintzetaz gain, egun hauetan kaleko giroa ere iritsi da erresidentziara. Atzo eguerdian, Beti Egariak txarangaren bisita jaso zuten eta jendea dantzan jarri zuten. □



Marrazki lehiaketako irabazole eta parte hartzaleak atzo Biterin.

Urumea Ikastolak atzo banatu zituen urteko marrazki lehiaketako sariak

URUMEA ikastolak atzo banatu zituen 26garren marrazki lehiaketako sariak. Lehiaketa 3 urtetik 16 urte bitarteko ikasleen artean egin zuten, 4 mailatan banatuta, eta maila bakoitzean hiru sari banatu zituzten. Sari banaketan ikasle, irakasle eta guraso asko bildu ziren eta parte hartziale guztiegi oroigarriak eman zitzaiakien. □

AURTENGOKO SARITUAK

3-5 urtekoetan
1-Uxue Encinas
2-Xabier Ledesma
Sari berezia: Naiara Beldarrain
6-9 urtekoetan
1-Axier Elustondo
2-Edurne Llera
Sari berezia: Iñigo Ledesma
10-13 urtekoetan
1-Janire Garin
2-Estibalitz Lion
Sari berezia: Jon Valhondo
14-16 urtekoetan
Sari berezia: Mikel Ledesma



Umeak Tren Txu-Txuan, herrian barrena buelta egiteko amorratzen.

Tren Txu-Txuan ibiltzeko ume ilerak

UMEAK izan ziren atzo protagonista kiroledegia atzean jarritako jolastokian. Era guztietako puzgarriak eta jolasak izan zituzten eguerdi osoan, eta ume txikiak gozatu ederra hartzut, batean ibili eta bestean ibili. Puzgarri guztietan izan ziren ume asko, bai-

na, aurten ere Tren Txu-Txuan izan du estimaziorik haundi-ena. Tren Txu-Txua eguerdi osoan etengabean ibili zen umeak herrian barrena paseatzen, eta hala ere sekulako ilerak egiten ziren txanda hartzeko zai.

Atzo ez ezik, umeek izan

dute aurreko egunetan ere non jolasean ibilia eta non gozatua: apar festa, zezen txikiak, burruhaundiak... Zezen koxkorretan Urumea ondoan aurten ere toki libre gutxi izan da eta umeek desafio ederrak botatzen zizkieten animalieri, eta baita eskapa ederrak egin ere. □



Umeek dezente atrebitzen dira zezenen aurrean. Argazkikoak suertea izan zuen, eta zezenak kilimak bakarrik egin zizkion. Bazen larriago ibilitakoak.

JANTZI DENDA

AMBOTO

Nagusia 54 - HERNANI- Tel.: 943 55 23 40

AMBOTO
Orain dena merkeago. Etorri!
Hemen gaituzu.

I. URTEBETETZEA
Paskuala Narbarte Zubillaga
2002ko ekainaren 22an hil zen
Paskuala ezagutu zenuten guztioi gonbidapena
luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo
urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.
Bere alaba Mila, suia Montxo, hilobak Ion eta Zuhaitz.
Urtebetetze meza bihar, igandea, ekainak 29, goizeko 11:00etan,
Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokian.
Hernanin, 2003ko ekainaren 28n.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK	FARMAZIAK
■ Taxiak: 943 550093	■ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ■ 943 551933
■ Udaltzaingoa: 943 333288	■ Gauzak: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 ■ 943 363549
■ DYB: 943 464622	
■ Autobusak: 943 556662	
■ Anbulatorioa: 943 006666	
■ Jokalari anonimoak: 943 331103	

GALARRETA JAI ALAI

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTZE JAIALDIA:

- partidua: Matxin IV - Badiola / Uterga - Etxeberria II
- partidua: Ezkurra - Urko / Altuna I - Lizaso
- partidua: Sarasua-Aizpuru / Agirresarobe-J.Etxeberria
- partidua: Zeberio I - Urrutia / Zalakain - Aizpurua II